



KONTZERTUA

Musika Hamabostaldia: nire hautaketa



ENSEMBLE DIDEROT TALDEAK SENPEREN JOKO DU.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Urtero bezala, badugu musika-zaleok zita garrantzitsu bat Donostian: abuztuan ospatzen den Musika Hamabostaldia. Aurtengo edizioa, 80.a, benetan gustagarria da, agian gehiegi. Honekin ez dut nota negatibo bat eman nahi, kontrakoa baizik. Baina, egia da, aurtengo egitaraua ez da oso ausarta. Imajinatzen dut askoz titulu ausartagoak aukeratuko lituzketela antolatzaileek, baina aurrekontua mugatuta dagoenean, arrakasta ziurtatu behar da nolabait, eta horretarako egitarau kontserbadorea behar da, nahitaez.

Aurreko urteetan egin dudan bezala, proposamen guztien artean gomendio batzuk egingo dizkizuet, nire ustez interesgarrienak diren saioekin. Halere, aipatuko ez ditudan errezitaldien artean benetako harribitxiak egongo dira, noski, baina aukeratu behar da. Ziklo

bakoitzetik saio bat porposatuko dizuet. Ziur nago bertaratzen bazarete ez zarete la damutuko.

Hasteko, Kursaal Auditorioko ziklotik kontzertu pare bat: Pucciniren *Madame Butterfly* opera, batetik. Nahiz eta mila aldiz entzun obra zoragarri honekin sekulan ez gara aspertuko. Lan ederra, melodiotsua, erromantikoa, hunkigarria... Denetatik dauka publikoa liluratzeko. Horrez gain, aldi honetan gure Ainhoa Arteta dugu protagonista, eta horrek puntu gehiago ematen dizkio saioari.

Bestalde, London Philharmonic Orkestrak, Juanjo Menaren batuta-pean, eskainiko dituen bi kontzertuak biziki gomendatzen ditut. Beethovenen piano eta orkestrarako kontzertuen integrala joko dute, Javier Perianes bakar-lariarekin batera, eta ziur nago mundiala izango dela.

DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA HAINBAT KONTZERTU

Victoria Eugenia Antzokiko zikloan, dudarik gabe, Khatia Buniatishvili pianista georgiarrak emango duen errezitaldia ezin da galdu. Oso artista berezia da, birtuoso, sentsiblea, teknikoki perfektua... Schubert, Liszt eta Stravinskyren obrak ekarriko ditu eta zeresana emango du, zalantzarik gabe.

Hamabostaldi ibiltaria ziklotik, Ensemble Diderot taldearen kontzertua oso interesgarria iruditzen zait. Senperen egingo den saio honetan Telemann, Leclair, Aubert, Corrette eta Boismortieren obrak entzuteko aukera izango duzue.

Amaitzeko, San Telmoko ostegun musikaletan Ona Cardona (klarinetea) eta Josep Colom (pianoa) izango ditugu gure artean. Egitarau guztiz erromantikoa disfrutatuko dugu musikari paregabe hauen eskutik. Ez galdu! ●